



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

CENTRO KURSAAL-KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.

KODE ETIKOA



EDUKIA

1. HITZAURREA. KODE ETIKOAREN HELBURUA.....	3
2. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA.....	3
3. KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA	3
4. KODE ETIKOA ONARTZEA ETA NAHITAEZ BETETZEA....	4
5. LANBIDE-JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK.	4
6. BETETZE-BATZORDEA	8
7. KODE ETIKOA INDARREAN JARTZEA ETA HAREN INDARRALDIA.....	9



1. HITZAURREA. KODE ETIKOAREN HELBURUA

Kode etiko honen (aurrerantzean, **Kode Etikoa**) helburua da CENTRO KURSAAL-KURSAAL ELKARGUNEA SA erakundearen (aurrerantzean, “**KURSAAL**”) jarduna bideratuko duten balio eta jarraibide orokorrak zehaztea, erakunde barruan etikan oinarritutako kultura bat ezartzen eta finkatzen dela bermatzeko eta finkatzeko, eta, horretaz gain, ustelkeriaren arloko jarduerak prebenitzea, betiere BEEPa kudeatzeko sistema eratzten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan aipatzen den Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (aurrerantzean, **BEEP**) aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Kode Etikoa eta Iruzzurraren aurkako gainerako barne-araudia betetzea eta interpretatzea arriskua babesteko mekanismo eraginkorra da KURSAALen izen onari dagokionez, Kodean bertan jasotako baldintzak ez betetzeak kalte egin baitiezaiokie.

Kode Etikoaren aplikazioak ez ditu inola ere urratuko ezarritako lege-xedapenak; beraz, horrelakorik hautemanetz gero, Kode Etikoaren edukiak xedapen horietara egokitu beharko dira.

Kode Etikoan xedatutakoa ez betetzeak lan-arloko legediaren araberako diziplina-zehapenak ekar ditzake, baita aplikatzekoak izan daitezkeen bestelako zehapenak ere.

2. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA

Kode Etikoak KURSAALen oinarritzko printzipioak jasotzen ditu, eta KURSAALeko kide guztiak eta, bereziki, erakundearen Administrazio Organoko kideak eta zuzendari kudeatzailea hartzen ditu eraginpean, edozein dela ere erakundearekin lotzen dituen kontratu-modalitatea, posizio hierarkikoa edo funtzionala (horiek guztiek banaka aipatzeko, aurrerantzean, “**profesionala**” esango dugu, eta guztiak batera aipatzeko, berriz, “**profesionalak**”).

Horrela, bada, edozein profesionalak Kode Etiko honetako xedapenak kontuan hartu eta bete beharko ditu uneoro; beren erantzukizunen esparruan, erakundearen zuzendaritzako organoek kode hori betetzea sustatuko dute.

Gainera, Kode Etiko hau KURSAALekin kontraturen bat egin dezaketen enpresa eta profesionalak ere aplikatu dakieke, betiere kontratatutako jarduerak erakundearen jarduerarako adierazgarria edo garrantzitsua bada.

3. KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA

Kode Etikoaren xedea ez da KURSAALen ohiko jardueran gerta daitezkeen balizko kasu guztiak jasotzea edo arautzea, baizik eta irizpide argiak ezartzea, profesionalen jokabidea bideratzeko eta, hala badagokio, beren lan-jardunean sor dakizkiekeen zalantzak argitzeko.



Kode Etiko honen aplikazioarekin lotutako edozein zalantza hierarkian gorago dagoenari eta/edo Betetze Batzordera helarazi beharko da, Salaketa Kanalaren bitartez. Fede onez jokatzeko duen informatzaileak ez du errepresaliarik jasango, eta nahi izanez gero, konfidentzialtasuna bermatuko zaio.

4. KODE ETIKOA ONARTZEA ETA NAHITAEZ BETETZEA

KURSAALeko profesional guztiek Kode Etikoaren edukia ezagutu, onartu eta bete behar dute, eta berau ezagutzeko eta ulertzeko prestakuntza egokia ere izan beharko dute, kodeak ondorio guztiak izan ditzan. Dokumentu hau eta Iruzuraren aurkako Sistema osatzen duten gainerako dokumentuak nahitaez bete beharreko arauak dira.

Profesionalak Kode Etiko hau betetzera behartuta daude, eta bertan jasotako balioak eta printzipioak errespetatzeaz gain, bertan ezartzen diren portaera-jarraibideen arabera jardun beharko dute.

Horrela, bada, profesionalak eta, batez ere, beste profesional batzuk ardurapean dituztenek, Kode Etikoan xedatutakoa bete eta betetzen dela zaindu beharko dute, eta kodean ezarritakoarekin bat datozen jardun, jarduera eta ekintzak sustatuko dituzte.

KURSAALek Kode Etikoa jakinarazi eta zabalduko du bere profesionalen artean, bakoitzari kopia bana emanez. Nolanahi ere, profesional guztiek Kode Etikoa betetzeko konpromisoa hartu beharko dute, idazki bidez.

5. LANBIDE-JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

KURSAALeko profesionalak bete beharreko jokabide-arau hauek ezartzen dira Kode Etikoan:

- (i) Ustelkeriaren, eroskeriaren eta iruzurraren aurkako borroka.
 - Ustelkeriaren aurkako politikaren arabera, KURSAALek irmoki gaitzesten du ustelkeriarekin, iruzurrarekin eta eroskeriarekin lotutako mota guztietako jardunbide oro, banakakoa nahiz enpresakoa izan.
 - Beren jarduera dela-eta, horrelako egoerak izateko arrisku handia, ertaina edo txikia duten profesionalak arlo horretako barne-araudia ezagutu eta bete beharko dute, eta KURSAALek arau horiek eskura jartzeko, ezagutarazteko eta horien gaineko prestakuntza emateko konpromisoa hartzen du.
 - Profesionalak uko egin beharko diote hirugarren batek ordainketa, komisio, opari edo ordainsariren bat eskatuz gero, eta horren berri eman beharko diote Betetze Batzordeari.
 - Bere jardunean Legea bete dadin eta ustelkeria mota guztien aurka borrokatu dadin arduratzen da KURSAAL. Hortaz, KURSAALek ez du onartuko erakunde pribatuekin nahiz agintari edo funtzionario publikoekin egindako jarduketa ustel edo desleialetan oinarritutako jarduera, akordio edo

emakidarik. Zentzu horretan, irregulartzat jo daitekeen jardunbiderik ez egiteko konpromiso irmoa duela adierazten du, besteak beste, kapitalak zuritzearekin, funtzionario-eroskeriarekin, prebarikazioarekin edo influentzia-trafikoarekin lotutakoak, dela hornitzaileekiko harremanetan, dela lehiakideekiko eta administrazio publikoarekiko harremanetan.

- Ildo berari jarraikiz, KURSAALeko profesionalek ezin izango dute eskaini, eman edo eskatu, ezta onartu ere, ez zuzenean, ez bitartekari baten bitartez, abantaila edo onura justifikatu gaberik, baldin eta horien helburua KURSAALerako, euren buruarentzat edo hirugarren batentzat berehalako edo bitarteko onura bat orain edo etorkizunean lortzea bada. Zehazki, ezin izango dute ezein eroskeria edo komisio mota eman, ezta jaso ere, inplikaturako beste edozein alde emandakoa edo egindakoa, hala nola funtzionario edo enplegatu publikoek, espainiar nahiz atzerritar, enpresetako langileek, alderdi politikoek, agintariek, herritarrek eta hornitzaileek. Eroskeria-egintzak berariaz debekatuta daude, eta halakotzat jotzen dira berez ez dagokion edozein abantaila zuzenean edo zeharka eskaintzea edo hitz ematea, horrelako abantailak ezkutatzeko edozein tresna, baita influentzia-trafiko ere.
- Zentzu berean, KURSAALeko profesionalek ez dute hitzematerik egingo, eta ez dute oparirik edo konpentsaziorik emango, baldin eta horien helburua administrazio-organoetan, organo judizialeetan edo politikoetan izapideak arintzea bada, edo izapide horiek ziurtatzea, edo emaitzan eragitea. Opariei edo bestelako ordainsariei dagokienez, horrelakoak debekatuta daude, tokian tokiko gustuen eta erabileren arabera kortesiazkotzat jo daitezkeenak izan ezik, Oparien Protokoloan ezarritakoaren arabera.

(ii) Interes-gatazkak

- KURSAALek leialtasunean oinarritzen du bere profesionalekin duen harremana, eta ez du onartzen profesionalen interesen eta KURSAALen jardueraren artean interes-gatazkarik egotea.
- KURSAALek balizko interes-gatazkak zaintzeko eta prebenitzeko beharrezkoak diren kontrolak sustatuko ditu.
- Profesionalek interes-gatazka ekar dezakeen egoera oro saihestuko dute, profesional baten interes pertsonalak eta KURSAALen interesak zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean. Kasu horretan, profesionalek egoera horren berri eman beharko diote hierarkian goragoko arduradunari, Betetze Batzordean jakinaraz dezan eta gatazka-egoera amaitzeko kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak har daitezzen. Hartara, Interes Gatazkak Kudeatzeko Politikan xedatutakoa beteko da.

(iii) Gardentasuna eta leialtasuna zerga-agintariekiko harremanetan eta funts publikoak behar bezala erabiltzea.

- Zerga-arloan jardunbide egokiak egiteko konpromisoa hartzen du KURSAALek, zerga-arloko araudia uneoro betez, baita Gipuzkoako Foru Ogasunarekin harreman egokia izatekoa ere. Era berean, debeku du legez kontrako onurak lortzea, atxikitako edo atxiki behar ziren kopuruak eta zergak ordaintzea saihestea, eta gauzazko ordainsarien konturako edozein diru-sarrera jasotzea, betiere horien bitartez bidegabeko itzulketak lortzen baditu, edo ez-betetzeren bat eragiten badiote indarreko arauetan ezarritako kontabilitate-betebeharrei dagokienez, edo kontabilitatean, liburuetan edo erregistroetan.
- Ildo beretik, Administrazio Publikoaren dirulaguntzak, desgrabazioak edo laguntzak lortzen diren kasuetan, jasotako funtsak eman ziren helburuetarako erabiliko direla bermatzen du KURSAALek.

(iv) Interes-taldeekiko harremana.

- KURSAALen jarduerarekin zuzenean edo zeharka lotura duten pertsona, elkarte, enpresa, erakunde edo kolektiboek osatzen dituzte KURSAALen interes-taldeak.
- KURSAALek bere jarduerarekin lotura duten interes-taldeekin harremanetan egoteko konpromisoa hartzen du, eta harreman hori legea betetzean eta elkarrekiko errespetuan eta konfiantzan oinarrituko da.
- Zehazki, bere profesionalei informazio gardena, argia, egiazkoa eta osoa emateko konpromisoa hartzen du KURSAALek, eta KURSAALen jardunean balioa etengabe sortuko dela bermatuko du uneoro.
- Bezeroen datu pertsonalak bildu, erabili eta tratatzeari dagokionez, haien intimitaterako eskubidea ez ezik, datu pertsonalak babesteari buruzko legeria betetzen dela ere bermatu beharko da, baita informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko legeetan eta aplikatzeoak diren gainerako xedapenetan aitortutako eskubideak ere.
- Bestalde, hornitzaileei dagokienez, KURSAALek konfiantzan eta informazioaren gardentasunean oinarritutako harremanak sustatzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, hornitzaileak eta kontratistak hautatzeko prozesuetan independentzia eta objektibotasuna izango ditu ardatz, kaudimenaren, egokitasun teknikoaren, kalitatearen, prezioaren eta interes sozialaren defentsaren estandarretan oinarrituko da, eta hornitzaile horiei Kode Etikoaren edukiaren berri eman beharko die.
- Azkenik, Administrazio Publikoari dagokionez, KURSAALek erabateko errespetuz jardungo du eta legeak benetan betetzea izango du xede; horretarako, bere jardunean agintariekin elkarlanean arituko da, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritzekin, eta une oro saihestuko du KURSAALen aldeko tratu mesedegarria ekar dezakeen bultzada, opari edo hobari mota oro, Administrazio Publikoarekin duen etengabeko

harremanean.

(v) Finantza-arloko informazioaren barne-kontrola.

- KURSAALen informazio ekonomiko eta finantzarioak leialki adieraziko du erakundearen ekonomiaren, finantzaren eta ondarearen arloko errealitatea, eta errealitate hori bat etorriko da, beti, oro har onartutako kontabilitate-printzipioekin eta finantza-informazioari buruz aplikatzekoak diren nazioarteko arauekin. Ondorio horietarako, ezein profesionalak ere ez du kontabilitateko erregistro eta txostenetako informazioa ezkutatu edo desitxuratuko, eta informazio hori, nolahi ere, osoa, zehatza eta egiazkoa izango da.
- Horrela, bada, KURSAALEk ahalik eta ardura handiena jarriko du bere jardunean, eta jasotzen diren funts edo ordainketetako diruaren jatorria legezkoa dela ziurtatu beharko du, kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitze aldera.

(vi) Isilpeko informazioaren, informazio konfidentzialaren eta pribilegiatuaren tratamendu egokia.

- KURSAALen jabetzako eta/edo haren esku utzitako informazioa, oro har, isilpeko informaziotzat eta informazio konfidentzialtzat hartuko da, eta sekretu profesionalari atxikiko zaio; hortaz, ezin izango zaie informazio horren edukiaren berri eman hirugarrenei, KURSAALen berariazko baimena izan ezean, inguruabarrek hala justifikatzen dutenean, edo horretarako legezko errekerimendua egiten denean, edo epailearen edo administrazio-agintaritzaren ebazpena betetzeko bidezkoa denean.
- KURSAALen eta bertako profesional guztien erantzukizuna da informazio isilpekoa eta konfidentziala baimenik gabe eta nahita zein ustekabean eskuratzeko, manipulatzeko edo suntsitzeko barneko nahiz kanpoko arrisku orotatik babesteko behar diren segurtasun-bitartekoak jartzea. Ondorio horietarako, KURSAALEko profesionalak konfidentziasuna gordeko dute hirugarrenetik harremanetan egiten duten lanaren edukiari buruz; bestela, zehapenak ezarri ahal izango zaizkie, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

(vii) Lanbidean zuzentasunez jardutea.

- KURSAALEko profesionalak zorrotz beteko dute indarrean dagoen legedia, eta beren jarduna osotasunaren, gardentasunaren, leialtasunaren, fede onaren eta arbitrariotasuna debekatzearen printzipioekin bat etorriko da, irizpide etiko eta moral gorenei eutsita, lan-jarduna zuzentasunez, zintzoki, arretaz, arduratsu, neutral eta efizientziaz gauzatuta, eta laneko jokabidean erabateko dedikazioa bermatuta.
- Profesional guztien betebeharra da hierarkian goragoko arduradunari eta/edo, hala badagokio, Betetze Batzordeari jakinaraztea zehapen-prozedura judicial,

penal edo administratibo ororen hasiera, bilakaera eta emaitza, baldin eta profesional bat ikertua, erruztatua edo akusatua bada eta bere eginkizunetan eragina izan badezake; KURSAALek dagozkion diziplina-neurriak eta/edo zehapen-neurriak hartuko ditu, hala badagokio.

- Profesionalek alderdi politikoekin edo helburu publikoak dituzten beste erakunde, instituzio edo elkarte batzuekin lotura izan dezakete, horietako kide izan daitezke edo horiekin lankidetzan aritu daitezke, betiere KURSAALen jarduerarekin zerikusirik ez duen esparru batean, eta lotura, kidesun edo lankidetzara hori pertsonala dela argi uzteko moduan egingo da, erakunde edo elkarte horiekin inolako harremanik izan gabe; politikoki neutroak izan beharko dute uneoro.
- Azkenik, KURSAALeko profesionalak sare sozial, foro edo blogak sortu, horietako kide izan, horietan parte hartu edo lankidetzan aritzen badira, eta horietan iritziak eman edo adierazpenak egiten badituzte, hori guztia pertsonala dela argi uzteko moduan egingo dute, eta debekatuta egongo da KURSAALen izena erabiltzea, aipatzea edo erakundearen izenean jardutea aurreko ezein kasutan. Adierazpenak KURSAALeko profesional gisa egiten badira, modu ordenatuan eta koordinatuan egin beharko dira, hierarkian goragoko arduradunarekin aldeztatik egiaztatuz egokiak direla, eta KURSAALi buruzko informazio oro isilpean eta konfidentzialtasunez gordeko da komunikabideen aurrean.

(viii) Berrikuntza sustatzea eta informazioa babestea.

- KURSAALen arabera, berrikuntza funtsezko balioa da gaur egungo enpresen kudeaketarako eta egiten duten jardura ahalik eta ondoen eskaintzeko. Horregatik, prozeduren etengabeko hobekuntza sustatzen dute eta, gainera, beren jardunean sortutako datuak, informazioa eta ezagutza erabat babespekoak direla bermatzen dute.
- Horrela, bada, profesionalek eskura duten informazioa eta ezagutza babestu eta zainduko dute, eta beren eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa den heinean baino ez dituzte erabiliko, arduraz, eraginkortasunez eta lanbide-jardueraren ingurunera egokituta, indarrean dauden baimen-prozedurak betez.

(ix) Osasun publikoa eta ingurumena errespetatzea.

- KURSAALek osasun publikoaren eta ingurumenaren arloan aplikatzekoak diren legeak betetzen ditu. Era berean, osasun publikoarekin nahiz ingurumenarekin lotura duten balizko gorabehera dagokienez, etengabe hobetzeko eta babesteko prozedurak ditu ezarrita, arlo horietako legeak edo bestelako babes-xedapen orokorrak ez urratzeko.
- Profesionalek ingurumena etengabe eta modu eraginkorrean babesten dela zaindu beharko dute, KURSAALek emandako jarraibideei jarraikiz eta arlo

horretako kudeaketa-estandarrak betez.

6. BETETZE-BATZORDEA

Betetze Batzordeak Kode Etikoa ez ezik, Iruzuraren aurkako Sistematan txertatutako gainerako dokumentuak ere behar bezala eta benetan betetzen direla zaindu beharko du, eta KURSAALeko profesionalek horien berri izan dezaten, zabal ditzaten eta uler ditzaten sustatuko du. Halaber, gutxienez urtean behin berrikus daitezten sustatuko du, baita horien eguneratzea ere, kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta egokia denean.

Era berean, Betetze Batzordeari dagokio Kode Etiko honetan jasotako printzipioekin bat ez datorren balizko jokabide irregular oro iker dadin sustatzea eta ikertzea; horretarako, dagokion bidetik bideratuko du eta, kasuan kasu, dagozkion lan-zehapenak aplikatuko ditu, aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera.

Profesional batek legez kanpoko edo Kode Etikoaren aurkako jarduketaren baten berri badu edo horrelako jarduketa bat gertatu izanaren zentzuzko zantzua badu, Salaketa Kanalaren bitartez jakinarazi beharko du, Iruzuraren aurkako Sistematan txertatuta dauden Kanal horren Funtzionamendu Arauen arabera.

Salatzailea nor den isilpeko informaziotzat hartuko da, eta salaketa jarri izanagatik ezin izango da inolako diziiplina-neurririk hartu, ez zuzeneko, ez zeharkakorik; dena den, horrek ez du esan nahi salatutakoei dagozkien eskubideak bertan behera geratzen direnik, indarrean dagoen araudiaren arabera. Gainera, Betetze Batzordean jasotako komunikazio guztiak konfidentziasunez tratatuko dira, baina, hala badagokio, agintari judizial edo administratiboei jakinarazteko betebeharra ere bete beharko da.

Betetze Batzordeak, halaber, Kode Etikoa betetzen ote den aztertzeko txostena egingo du urtero, eta KURSAALek Kode Etikoan egin beharreko aldaketak edo eguneratzeak egingo ditu, arestian aipatutako txostenaren edukia aintzat hartuta.

7. KODE ETIKOA INDARREAN JARTZEA ETA HAREN INDARRALDIA

KURSAALeko Administrazio Organoak onetsi zuen Kode Etikoa 2022ko uztailaren 19an; berehala jarri zen indarrean, eta indarraldi bete-betean egongo da harik eta inolako aldaketarik egiten ez zaion bitartean.